

ARABAKO KUADRILLAK

**INDARKERIA
MATXISTAREN
GAINEKO
DIAGNOSTIKOA**



▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
▶

www.araba.eus

AURKIBIDEA

SARRERA_3.OR

1. KUADRILLAK DATUETAN_5.OR

2. INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEEK
BURUTUTAKO LAGUNTZA ESKAEREN DATUAK_6.OR

3. KUADRILLA ETA BERAIEN BERDINTASUN
POLITIKAK_9.OR

4. KUADRILLETAKO TEKNIKARIEN IRITZIAK_11.OR

4.1 OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK_11.OR

4.2 OSASUN-LANGILEAK_12.OR

4.3 ERTZAINZA_13.OR

4.4 IKASTETXEAK_14.OR

4.5 KUADRILLETAKO ELKARTE-SAREA_15.OR

4.6 ARTATUTAKO EMAKUMEA_15.OR

5. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK_17.OR

5.1 ONDORIOAK_17.OR

5.1 GOMENDIOAK_21.OR

ERREFERENTZIAK_24.OR

SARRERA

Arabako Kuadrilletan ematen den indarkeria matxistaren egoeraren diagnostikoa, Arabako gizonen eta emakumeen berdintasunerako III. eta IV. Foru Planetako jarduera ildoetan jasotzen direnak betetzeko egiten da. IV. Foru Planak 4 ardatz jasotzen ditu, hirugarrena **“Emakumeen aurkako indarkeriak eta beste indarkeria matxista batzuk”** da eta bere helburua indarkeriarik gabeko bizitza bermatzea da. Hori lortzeko proposaturiko neurria, laguntza publikoa eskatzen duten biktimentzako eskuragai dauden baliabideen kudeaketa eraginkorraren maximizazioa da.

Neurri horrek baliabideen eta Kuadrilletako egoera orokorraren gaineko jakintza izatea beharrezko bilakatzen du; horretarako, 2016 eta 2017¹ urteetan zehar diagnostikoa egin gabe zuten Kuadrilletako diagnostikoak egitea planteatu zen eta azken diagnostiko bat osatzea 2013 eta 2016² urteen artean egindakoekin. Gasteizko diagnostikoa ezin izan da prozesu honetan sartu; eguneratze lanetan baitago. Horrek, muga garrantzitsu bat suposatzen du biztanleriaren hiru laurdena batzen baitu, nahiz eta geografikoki Lurraldeko Kuadrillarik txikiena izan.

Informe hau gauzatzeko, diagnostiko ezberdinen analisi konparatiboa izan da erabili dugun erreminta metodologiko nagusia; hau da, Lurraldeko egoera matxistaren ikuspegi orokor eta bateratu bat eskuratu nahi dugu, baina, aldi berean, tokian-tokiko puntu ahulak identifikatu eta estruktura orokorra indartuko duten proposamenak ere egin nahi dira.

Diagnostikoak momentu desberdinetan, bost urtetan zehar, eta udalerriek edo Kuadrillen eskaerari erantzuteko egin dira. Diagnostikoak egiteaz aholkularitza ezberdinak arduratu dira; ondorioz, beti ezin izan da analisi konparatibo bat gauzatu, diagnostiko bakoitzak aspektu ezberdinak landu baititu. Lortutako emaitzek Arabako sei Kuadrilletan dagoen indarkeria matxistaren gaineko ikuspegi orokorra ikusten lagunduko digute, eta batez ere, landa-gunean eta herri txikietan dagoen emakumeen aurkako indarkeria.

¹ Añana eta Gorbeialdeko diagnosiak 2016an egin ziren; Aiara-Ayala eta Kanpezu-Arabako Mendialdekoa berriz 2017an.

² Arabako Laudata, Guardia-Arabako Errioxa eta, Laudio eta Amurrioko udalerrri mailan.

1 TAULA. URTEA ETA DIAGNOSTIKOEN ESKARIA:

UDALA / KUADRILLA	URTEA	NOREN ESKARIZ GARATUA:
AMURRIO	2012	Udalerriak
ARABAKO LAUTADA	2013-2014	Udalerriak
LAUDIO	2014	Udalerriak
GUARDIA-ARABAKO ERRIOXA	2015	Berdinbidean programak
AÑANA	2016	Foru Aldundiko Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun sailak
GORBEIALDEA	2016	Kuadrillak
AIARA	2017	Foru Aldundiko Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun sailak
KANPEZU - ARABAR MENDIALDEA	2017	Foru Aldundiko Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun sailak

Diagnostiko guztietan honako aspektu komunak lantzen dira: datuak (bai demografikoak, bai indarkeria erosoenak), baina, era ezberdinetan antolatu eta aurkezten dira.

Hiru diagnostikok biktimen iritzia barneratu dute (Amurrio, Arabako Lautada eta Laudio); gainerakoetan ezin izan zen erabiltzaileekin harremanetan jarri, Añanan ez ezik, non, entrebista bat lortu zen. Azken diagnostikoetan, emakumeekin esku-hartu duten langile teknikoaren iritzia eta Araban egindako beste ikerketa batzuetako testigantzak hartu dira aintzat.

Amurrikoan izan ezik, gainerako diagnostiko guztietan emakume biktimei laguntzeko dauden baliabide publikoetan lan egiten duten langile teknikarien iritzi pertsonala ageri da.

Foru Aldundiko Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun sailaren eskariz burutu diren hiru diagnostikoetan eta Gorbeialdeakoan honako hauek landu dira, besteak beste: langile politikarien iritzia, berdintasun politiken analisia, elkarte-sarearen iritzia, eta marko kontzeptual eta terminologikoa; azken hau, hobetzen joan zen behin diagnostikoa bukatu eta gero ere, laneko erreminta bezala erabiltzeko.

1. KUADRILLAK DATUETAN

Arabako Kuadrillak Arabako Lurraldea osatzen duten eskualdeak dira. Laudio, Amurriko edo Agurain bezalako udalerrak izan ezik, herri gehienak landa izaera dute, sakabana-turik daude, txikiak dira eta populazio urria dute (100 eta 1.000 arteko biztanleriarekin). Biztanleriaren ezaugarri horiek indarkeria ulertzeko eta aurre egiteko moduetan faktore eraginkorrak dira. Argituz (2012) informearen arabera, indarkeria egoera bat bizi duten emakumeek onartu, partekatu eta batez ere salatu edota egoerari irtenbide bat aurkitzeko oztoporik nagusienetakoa herri txiki eta isolatuetan ematen den kontrol sozial gogorra da.

Kuadrillek, guztira, 50 udalerrak eta 354 herrigune dituzte. Biztanleria osoa 79.995 pertsonakoa da, hauen %49,1a emakumezkoa da, eta gainontzekoak gizonezkoak. Kuadrillen osotasunean, %5,5eko da migratutako biztanleria, eta hauen %48a emakumezkoa da.

2 TAULA. KUADRILLETAKO HAINBAT DATU SOZIODEMOGRAFIKO:

KUADRILLA	UDALERRIAK	HERRIGUNEAK	BIZTANLERIA OSOA	MIGRATUTAKO BIZTANLERIA
AIARA	5	45	34.475 Emakumeak %50,3 Gizonak %49,7	1.545 4,4% Emakumeak %50,1 Gizonak %49,9
ARABAKO LAUTADA	8	60	12.831 Emakumeak %48,2 Gizonak %51,8	1.114 8,6% Emakumeak %46,5 Gizonak %53,5
GUARDIA - ARABAR ERRIOA	15	23	11.182 Emakumeak %51,2 Gizonak %48,8	269 2,4% Emakumeak %43 Gizonak %57
GORBEIALDEA	6	70	9.679 Emakumeak %46 Gizonak %54	441 4,5% Emakumeak %42,8 Gizonak %57,2
AÑANA	10	109	8.846 Emakumeak %46 Gizonak %54	554 6,2% Emakumeak %49 Gizonak %51
KANPEZU - ARABAKO MENDIALDEA	6	47	2.982 Emakumeak %44 Gizonak %56	120 4,2% Emakumeak %57 Gizonak %43

2. INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEEK BURUTUTAKO LAGUNTZA ESKAEREN DATUAK

Atal honetan, dauden zerbitzu eta baliabideei emakumek emandako erabilera aztertuko dugu.

3 TAULA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO TELEFONO BIDEZKO ARRETA ZERBITZURA (SATEVI)³ EGINDAKO DEIAK:

UDALA / KUADRILLA	2015	2016
AIARA	58	25
AÑANA	4 urtetan, 4 dei	-
GORBEIALDEA	2	1. sei hilabetekoan dei bakar bat bera ere ez
ARABAKO LAUTADA	-	-
GUARDIA - ARABAR ERRIOXA	-	-
KANPEZU - ARABAKO MENDIALDEA	6	Azarora arte, 25


Kuadrilletan modu hain ezberdinean erabiltzearen arrazoiak edozein izanda ere, Arabako Lurralderako baliabide oso garrantzitsua izan daitekeela ikusten da. Informazioa eskatzeko dei bat egitea eta modu anonimoan egin ahal izatea, adibidez, salaketa batekin baino modu ez hain zorrotzean biolentziatik aterabidea errazten duen urrats bat da. Baliabide honen ezaugarriak Kuadrilletako biztanleen ezaugarriekin modu egokian bat datozela dirudi eta orain arte egindako hedapena baino askoz handiago egitea merezi du.

Horrez gain, biktimek jartzen dituzten polizia-salaketak ere beste informazio esanguratsu bat dira. Ertzaintzak emandako informazioa hiru indarkeria moduren berri ematen du: genero-indarkeria (bikoteak nahiz bikote ohi gizonezkoak emakumearen aurka egindako eraso), etxeko indarkeria (senide batek emakume bati egindako eraso) eta sexu erasoak (sexu askatasunaren aurkako delituak).

³ Biktima, familia, profesional eta indarkeria egoeretan zer egin jakin nahi dutenei hizkuntza ezberdinetan informazioa eskaintzen dien baliabide telefoniko etengabea da.

2015 eta 2016ko datuak aztertuko ditugu (urte hauek baino lehen bere diagnostikoa landua zuten Kuadrillen kasuan diagnostiko honetarako bereziki eguneratuak). 4 Taulan datuak indarkeria moduetan eta Kuadrilla bakoitzean bildurik ikusten ditugu, 1 Grafikoan modu eskematikoagoan ikusi daitezkeen bezala.

1 GRAFIKOA: 2015-2016 URTEETAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKE-RIAGATIK EGINDAKO SALAKETAK KUADRILLAKA (GUZTIZKOAK):



Ertzaintzaren datuek Kuadrilla bakoitzean egon diren zalaketen arteko konparaketa eta deskribapena egiteko balio digute, baina, ez digute inolako informaziorik ematen emakumeen ibilbide, esperientzi edota iritziari buruz. Hots, emakumeen esku-hartzearen gaine-ko datuak era deskriptiboan soilik ez erabiltzeko, kasu bakoitzeko **ibilbide eta emaitzen** informazioa biltzeko sistema bat behar da.

Datuek eskaitzen dituzten mugez gain, adieraz genezake indarkeria motaren bat jasan duten emakumeek gehien jotzen duten ibilbidea dela salaketarena. Eta hau baieztatzen dugu, jarraian, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (IFBSaren) baliabide espezializatu- en erabilera aztertuko dugulako eta honen erabilera salaketarena baino murriztagoa dela ikusiko dugulako.

4 TAULA. ARABAKO LURRALDEKO ERTZAINZAREN KOMISARIAN JASOTAKO SALAKETAK 2015-2016 URTEETAN ZEHAR, KUADRILLA ETA INDARKERIA MOTAKA BANAKATURIK:

	AIARA		ARABAKO LAUTADA		GUARDIA - ARABAR ERRIOXA	
	2015	2016*	2015	2016	2015	2016
INDARKERIA MOTA						
Bikoteko/bikote ohiko indarkeria	45	30	10	9	9	9
Etxeko indarkeria	25	7	6	9	4	9
Sexu Askatasuna	2	-	2	2	-	-
Guztira	72	37	18	20	13	18

	GORBEIALDEA		AÑANA		KANPEZU - ARABAKO MENDIALDEA	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016**
INDARKERIA MOTA						
Bikoteko/bikote ohiko indarkeria	5	5	11	13	1	1
Etxeko indarkeria	2	1	4	4	-	-
Sexu Askatasuna	-	1	-	-	-	-
Guztira	7	6	15	17	1	1

* Urte horretako ekainera arte jasotako datuak.

** Urte horretako irailera arte jasotako datuak.


3. KUADRILLA ETA BERAIEEN BERDINTASUN POLITIKAK

Kuadrillek eta udalerriek berdintasun gaietan eskuduntzak garatzen doazen heinean eta politika publikoetan irudikatzen, gai honekiko duten konpromiso zehatza erakusten doaz, eta berariazko aurrekontu, langile, zein gero eta zehatzagoak diren ekintza neurrietan gorpuzten dira udalerrietako eta herrialdetako errealitateetan. Interesa, sentsibilitatea, gaiaren ezagutza, eta teknikariei eman beharreko sostengua tokiko berdintasun politiken garapenerako benetako apustua egiten duten politikarien zenbait adierazle dira. Baita berdintasun politiken baitan indarkeriari aurre egiteko eta aurre hartzeko politikak, biktimei egokitasunez artatzeko, eta gizartea problematika honetaz jabetzeko. Hurrengo tauletan Kuadrillako berdintasun plan eta langileen buruzko datuak biltzen ditugu, eta aldi berean alkate, zinegotzi eta Kuadrillako buruen ardurak ere barneratu ditugu.

5 TAULA. BERDINTASUN PLANA ETA LANGILEAK KUADRILLAKA ETA UDALERRIKA:

KUADRILLA	BERDINTASUN PLANA	BERDINTASUNEKO BERRARIAZKO LANGILEAK	BERDINTASUN PLANA DUTEN UDALERRIAK	BERDINTASUNEKO BERRARIAZKO LANGILEAK
AIARA	Lanketa prozesuan	2016an lanean hasita	Laudio III. Berdintasun Plana 2016-2019 Amurrio IV. Berdintasun Plana 2015-2018 Aiara, Okondo eta Artziniega I. Berdintasun Plana 2009-2011	Laudio: Bai Amurrio: Bai
AÑANA	Ez dauka	2016an lanean hasita	Iruña Oca I. Berdintasun Plana 2015	Animazio soziokulturaleko teknikaria
GORBEIALDEA	No tiene	2016an lanean hasita	Aramaio I. Berdintasun Plana 2014 Zigoitia I. Berdintasun Plana 2015-2018 Zuia I. Berdintasun Plana 2015 Legutio I. Berdintasun Plana 2016	Zigoitia: Berdintasuna, Ongizatea eta Kultura zinegotzigoa
ARABAKO LAUTADA	Emakumeen eta Gizonen Berdintasun-rako I Plana (2016-2019)	2016an lanean hasita	Alegría-Dulantzi I. Berdintasun Plana 2010-2012 Burgu I. Berdintasun Plana 2009-2012	Alegria-Dulantzi: Bai Burgu: Bai
GUARDIA - ARABAR ERRIOKA	Ez dauka	2016an lanean hasita		
KANPEZU - ARABAKO MENDIALDEA	Ez dauka	2016an lanean hasita	Santikurutze Kanpezu Berdintasun ordenantza 2015 I. Berdintasun Plana 2016-2019 Maetzu Berdintasunari buruzko diagnostikoa 2016	Santikurutze Kanpezu: Berdintasun Teknikaria eta Berdintasun Zinegotzigoa

POLITIKARIEK ONARTURIKO ZAILTASUNEN ESKEMA:



4. KUADRILLETAKO TEKNIKARIEN IRITZIAK

Diagnostiko guztietan ez langile teknikoaren iritzia barneratu ez den arren, garrantzitsua deritzogu hauek aintzat hartzea, zeren, elkarren antzekoak izan daitezke, eta, batez ere, emakume biktimen harretarako politikak hobetzeko beharrezkoak direlako.

4.1 OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK

Indarkeria matxistaren emakume biktimen laguntza sistema publikorako sarbidea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak dira. Haien bitartez eta bertako langileekin bizi duten indarkeria identifikatzen ikasten dute, sostengua aurkitzen dute, espezializatutako zerbitzuetarako sarbidea izan ahal dute, eta laburbilduz, indarkeriatik ateratzeko ibilbidea hasi dezakete. Kuadrilla bakoitzak Oinarrizko Gizarte Zerbitzua dauka eta, beste lan batzuen artean, emakumeei arreta ematen diete, indarkeriaren biktima gisa haien burua errekonozitu ala ez. Laudioko udalerriko eta Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako egituretan kolektibo honi modu espezifikoan arreta ematen dion emakumezko Oinarrizko Gizarte Langilea kokatzen da.


OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETAKO TEKNIKARIEK ONARTUTAKO ZAILTASUNEN ESKEMA:



4.2 OSASUN-LANGILEAK

Orokorrean, osasun-langileengatik jasotako iritziek indarkeriari aurre egiten dioten edo egin izan dioten emakumeekin lan egiteko formazio falta garrantzitsua adierazten dute. Ezjakintasunak Kuadrillaren arabera maila desberdinetakoak dira, baina orokorrean osasun-langileen formazioa premiazkoa da. Halaber, herri-gune eta landa-guneen azpian dauden errealitate desberdinak kontutan izanik, emakume nagusiek pairatzen duten indarkeria identifikatzea ahalbidetzen duten adierazleak azpimarratzen duten formazioa izatea garrantzitsua izango litzateke. Lehen Mailako Atentzioko kontsultak indarkeria antzemateko eremu aproposa dira eta horregatik osasun-langileen deribazio lana ez ezik, inplikazioa eta jarraipena ere funtsezkoak dira.

OSASUN ZERBITZUETAKO TEKNIKARIEK ONARTUTAKO ZAILTASUNEN ESKEMA:



4.3 ERTZAINZA

ERTZAINZAKO TEKNIKARIEK ONARTUTAKO ZAILTASUNEN ESHEMA:




Diagnostiko desberdinetarako elkarrizketatutako Ertzainen aburuz, biktimekin lan egiteko aurkitzen dituzten zailtasunak aldizkakoak eta oso argi identifikatutakoak dira. Beste baliabide batzuetako teknikariek ez bezala, ez dute esku hartzean edota zerbitzuaren antolakuntzan arazorik planteatzen. Testuingurua urruntze-aginduak betetzeko traba gisa aurkezten dute, biztanle kopurua dela eta.

Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, Ertzaintza da emakumeek gehien baliatzen duten birtartekoa. Halere, ez dute arazotzat onartzen emakume askok Gizarte Zerbitzuetatik indarkeriatik ateratzeko ibilbidea ez jarraitzea.

4.4 IKASTETXEAK

Kuadrilla desberdinetan egindako diagnostikoak lantzeko Kuadrilletako ikastetxetako 20 pertsonen parte-hartzea eta testigantzak kontutan hartu ziren. Teknikariek ez dute beraien burua kasuen arretarako erreferentetzat jotzen, baina gehienek euren papera antzemateko eta prebenitzeko eragile gisa ikusten dute. Batzuek, indarkeria bikote helduen baitan baino ez dute ulertzen eta beraz, eskola ikasleen amengan eraginik ez duen eremutat dute. Beraz, haien burua rol baten ere ez dute kokatzen afera honetan.

IKASTETXETAKO TEKNIKARIEK ONARTUTAKO ZAILTASUNEN ESKEMA:



Euren figura indarkeria matxista antzemateko eragile gisa ikusten ez dutenek, indarkeria matxistaren ulermen orokorra eta genero-desberdintasunarekin duen harremana ulertzearekin bat ikuspuntua aldatuko luketelakoan gaude. Batez ere, beste sektore batzuetan (politikariek zein beste arlo batzuetako teknikariek) gazteen artean ematen den indarkeriaren errepikapenari buruzko ardura berezia dutela kontutan izaten badugu.

4.5 KUADRILLETAKO ELKARTE-SAREA

Kuadrilletako elkarte-sarea desberdina da batetik bestera. Aiara eta Gorbeialdean, Añanan (herri mugimendu eskasekoa) baino sare handiagoa eratzen dute. Bestalde, elkarte guztiek ez dituzte berdintasunaren aldeko ekimenak egiten. Beraz, existitzen diren elkarteak kuantitatiboki aztertzeetik harago, elkarteei ardura zaizkien gaiak kontutan izan behar ditugu. Horrela, berdintasunarekin zerikusia duten gaiak, emakumeak soilik eta emakumeak gehiengoa osatzen duten elkartetan izaten dute interesik handiena. Elkarteetan indarkeriari buruz arduratuta daude, baina profil feminista duten elkarteek ekiten dioten gaia da.


Oro har, elkarteek formazio zabalagoa behar dute indarkeria kasuak antzemateko eta laguntza behar duten emakumeei laguntzeko tresnak eskura izateko eta batez ere, emakumeenganako kontrol sozial gutxiago duen giroa sortzeko eta indarkeriaren normalizazioa deseraikitzeko. Zentzu honetan, emakumeei, bere seme alabei eta indarkeria matxistari aurre egiten dioten beste biktima batzuei sostengua emango liokeen sare soziala sustatu lezakete udalek eta Kuadrillek.

4.6 ARTATUTAKO EMAKUMEAK

Emakumeei arreta ematen dieten langileen formazio espezifikoaren gabezia emakumeek euren antzematen dute. Modu onean jasoak ez izatearen sentipenek, batzuetan ahoz jasotzen dituzten testigantzen inguruko zalantzek, eta bizi dituzten babesgabetasun egoerek, indarkeriatik ateratzeko bidea eten dezakete. Epaitegietatik igaro diren emakumeen ondoreari buruzko hainbat kexa zehatz badaude; prozesu judizialtan barneratzen diren momentuan behar den informazioa azpimarratzea garrantzitsua iruditzen zaigu.

Azkenik, emakumeek ondoko arazo garrantzitsu hauek betetzea eskatzen dute: laguntza enpatikoa eta informatutakoa jasotzea, harrera pisu gehiago egotea, eta menpekotasun ekonomikoan dauden emakumeei ematen zaizkien diru-kopuruak bermatzea. Nolabait, emakumeek planteatzen dituzten behar guztiak Kuadrilla desberdinetako politikariek eta teknikariek adierazitako balorazioekin loturik daude. Beraz, badirudi indarkeriatik ateratzeko ibilbideak eraikitzen ari diren emakumeen sostengua eta laguntza hobetzeko ildoetan bat datozela.

EMAKUMEEK ONARTUTAKO ZAILTASUNEN ESKEMA:



5. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

5.1 ONDORIOAK

Diagnostikatzeko prozesuaren helburua Arabako Lurralde Historikoko Kuadrilletako indarkeria matxista egoeren aurrean erabakitzeko edota esku hartzeko gaitasuna dutenen kontzientzian eta inplikazioan aurrera pausoak ematea da. Baita indarkeriaren prebentzioa, biktimen arreta eta beharrezko erreparazio sozialaren gaineko politikak garatzeko eta egokitzeko jarraibideak emateko ere; hauek, Udal mailan zein Kuadrilla eta Foru Aldundi mailan eman beharreko aurrera pausoak eta jarraibideak dira.

Sei Kuadrillen diagnostikoa eta diagnostiko orokorra egiteko aintzat hartu ditugun bi udal-errietako azterketak, nahiz eta bilatzen dutenari begira ikuspegi desberdina izan, aurkitutako antzekotasunak argiak dira. Indarkeria matxistaren normalizazioa presente dago Kuadrilletako diagnostiko guztietan eta are gehiago ezaugarri landatarragoak dituzten Kuadrilletan.

Normalizazioa ezaugarri soziologiko bat izateaz gain, faktore politikoa ere bada. Beraz, indarkeria sostengatzen duen egitura desberdintzailea eraldatzea pentsatu behar da, aldaketa kultural sakon baten bitartez. Horrek denbora behar du, eta, besteak beste, emakumeak, genero-araua, aniztasun sexuala, bikote harremanak eta familia harremanak ikusteko modua aldatzeko apustu irmoa beharrezkoa da. Gaia era askotan landu behar da, eta batez ere, babes politikoa behar du sozialki eta pertsonalki egiteko eskubideaz baliatzeko mugak dituzten eta horregatik, pertsonen arteko indarkeria edota indarkeria sinbolikoa jasaten duten pertsonak babesik gabe ez uzteko.

Kultura aldaketa horren parte bat politikari formatu eta informatuak izateko erronka behar du, aldaketen sustatzaile izango direnak eta aldaketen ondorioak bere gain hartuko dituztenak, arduradun diren errealitatearen beharrezko eraldaketa gisa. Formakuntza eta informazio honekin batera, gertatu ahal diren eta gertatzen diren indarkeria modu guztiak (eta ez bakarrik bikote edo bikote ohiarena) ulertzea ahalbideratuko dien marko teoriko feminista izateaz gain, biktimengan gertatzen diren dinamikak sakonean ulertu beharko dituzte, indarkeria matxista bizitzen ari direla onartzeko zailtasun larriak sortzen duen emakumeen sozializazio prozesuaren emaitza gisa.

2016az geroztik Kuadrilletan LAIA Eskola sustatu da; hau, Kuadrilletako emakumeen ahalduztze prozesua bultzatzeko proiektu estrategikoa da eta, pertsonal politikoak era erreal eta sinboliko batean babestu beharreko eraldaketa kulturala bultzatzeko izaera estrategikoa dauka.

Bestalde, ezinbestekoa da ulertzea indarkeria ulertzeko modua aldatzen joan hala, hori bizi dutenen pertzepzio maila areagotzen joango dela; eta ondorioz, laguntza eskatzen dituztenen kasuak ere areagotu egingo direla.

teknikoari sostengua ematea.

Gainera, diagnostikoetatik sortutako beste alderdi garrantzitsua erakundeen arteko koordinazioa hobetzea da, eta erakunde bakoitzaren lanetan ekintzarako jarraibide homogeneo eta barneratzaileak ezarri ahal izatea. Laudioko eta Amurrioko udalek, baita Arabako Lautadako Kuadrillak ere, koordinazioa egiteko tresnak eta koordinazioari jarraipena egiteko jarduera planak dituzte. Zalantzarik gabe, zailtasunak zailtasun, beste erakunde batzuekin koordinatzeko prozesu honek biktimen arreta sendotzen duete eta, orokorrean, indarkeria matxistari aurre egiteko ekimena ere.

Jarduera koordinatuaren aurrera pausuen alderdi bat datu-bilketa eta sistematizazio izan beharko litzateke, dudarik gabe. Gaur egungo bilketa sistema korapilatsua da; eta ondorioz, hainbat datu-basetako informazioa lortzeko hainbat profesionalengana jo behar bai da. Beraz, diagnostikoak egitea atzeratzen da eta, askotan, sentsibilizazio politikak berri-kustea eragin dezakeen eta Gizarte Zerbitzuetan zein beste erakundeetan laguntza gutxien eskatzen ari diren herritarrei heltzeko beharrezkoa den informazio galera garrantzitsua gertatzen da.

Datu-bilketa jarduera koordenadak ezartzeko oinarritzkoa da eta, beraz, finkatu beharreko funtsezko zutabea da. Gainera, datu-bilketak eragile politiko eta teknikoaren inplikazioa ematen du. Sistematizazio on bat ezin da langileen borondatearen eta sentsibilitatearen menpe egon, beraien formakuntza eta profesionaltasunaren eskuetan baizik.

Azkenik, azpimarratu beharra dago Kuadrilletan gehien errepikatzen den arazoa herri txikietan eta landa-gunean indarkeria pairatzen duten emakumeek dituzten zailtasunekin zerikusia duela. Kuadrilla askok herri-gune txikiak dituzte eta beraien artean zein Vitoria-Gasteiz hiriburutik (non baliabide gehien dauden) isolaturik daude. Herri-gune txikiak dira emakumeek gizarte presioa eta zer esango dutenaren beldurra gehien sufritzen duten espazioa.

Egoera honek, epe luzera, ohiko bizilekua bertan behera ustea dakar, eta sarritan, hiriburura behin betiko bizitzera joatea. Gizarte presioaren beldurragatik zein erasotzailearekiko distantzia nahikoa jarri ezin izanagatik, herria uzteko beharrak erasotzaileei sostengua -ez esplizitua- ematea suposatzen du, eta ez biktimei.

Landa-gunetan indarkeriaren ikusezintasuna kezkarria da. Biztanleriaren batz besteko adina 50 urtetik gorakoa izaten da. Datu honek irudikatzen du tratu txarrak pairatu eta ateratzeko irtenbidea hasten duten emakumeek urte asko daramatela indarkeriari aurre egiten; eta indarkeria hori kronifikatu egin dela ere irudikatzen du. Aurreko datuek azaltzen dutenez, emakumeen ehuneko handi batek hamarkada bat baino gehiago darama indarkeria egoerei aurre egiten.

Emakume nagusiekin lanean jardutea lehentasunezkoa dela deritzogu; eta ez bakarrik bikoteen partetik jasaten duen indarkeriagatik, baizik eta beste senide batzuen partetik ere jasan dezaketengatik. Beharrezkoa da antzemateko eta laguntzeko sarea handitzea; adibidez, osasun langile eta etxeko laguntzaileen bidez.

Bestalde, baliabide, udal politika eta langile urriak dituzten Kuadrilletan ere, indarkeriatik ateratzeko prozesuari hasiera ematen dioten emakumeak badaudela jakinarazten digute datuek. Egoera hori kezagarria baino kezagarriagoa iruditzen zaigu biktimen egoera etsiagatik: batetik, laguntza zuzena eta fidagarria ez izanda ere, hitz egitera ausartzen direnengatik; eta bestetik, behar duten laguntzarako tresna instituzionalik ez sozialik aurkitzen ez dituztenen ezkutuko kasu guztiengatik. Hil edo bizikoa da Kuadrilla guztiek indarkeriaren biktimei arreta emateko langileak, baliabideak, formakuntza eta beharrezko tresnak izatea. Indarkeria matxistari buruz hitz egiten dugunean “hil edo bizikoa” dela esatea, ez da era metaforiko batean izaten.

Esandako guztiaz gain, landa-guneek indarkeriaren aurkako ardatz estrategikoak garatzeko benetan mesedegarriak izan daitezkeen eremu positiboak ere badituzte. Herri txikietan hurbilekoa eta familiarra den tratua ematen da teknikariekin. Hurbiltasun hori ondo bideratuz gero eta sentsibilizazio eta formakuntza egokia izanez gero, indarkeria egoerak antzemateko aurrera pauso eta esku-hartze bide garrantzitsuak zabal daitezke.

Landa-gunetan **emakumeei zuzenduriko sare seguru bat sortzea** helburu garrantzitsu gisa azpimarratzen dugu. **Arreta ibiltaria** esku hartze eraginkorrerako bidea izan daiteke, irtenbidean gizarte presioaren eraginez oztopoak aurkitzen dituzten emakumeentzako batez ere. Ildo beretik, proposamen honen eraginkortasuna esku hartze ibiltariak (jada egiten direnak eta indarkeriari aurre egiten dioten arreta nabarmenki errazten dutenak) eusten dute.

5.2 GOMENDIOAK

Jarraian adierazten ditugun gomendioak, testuan zehar emandakoei batzen dizkiegu eta politika publikoak hobetzeko helburua dute; horretarako, prebentziozko politika publikoen optimizazioa, indarkeria matxistaren biktimen arretaren eta baliabidetakako sarbi-dearen hobekuntza eta haien erreparazio sozialari buruzko hausnarketari hasiera emateko beharrezkoak diren ardatz batzuk ezartzen ditugu.

Politika horiek jasagarriak izango dira, beti ere indarkeria matxistaren kontrako borroka berdintasun planetan kokatzen bada, gaian espezializaturiko pertsonak honetara biltzen badira, etengabeko sensibilizazio eta prebentzio kanpainak egiteko baliabideak badaude, eta biktimen arreta eta erreparazioa hobetzea sustatzen bada.

Kontzientzia eta sensibilitatea duen gizarte bat emakumeentzako segurtasun sarea da eta sarea bera da prebentzio kanpainarik onena. Beraz, hurrengo eremuak zehatz-mehatz nabarmentzea beharrezkoa da:

- Biztanleria osoari zuzendutako berdintasuna eta indarkeria matxista lantzen duten sensibilizazio eta prebentzio ekintzak.
- Bizi baldintza ezberdinak direla eta zaugarritasun maila altuagoa duten emakume taldeek jasaten duten indarkeria moduen gaineko jakintzak areagotu.
- Hirugarren adineko emakumeen egoera kaltebera (zeinak indarkeria kronifikatua jasaten duten) ezagutarazten duten sensibilizazio eta formakuntza ekintzak.
- Indarkeria matxistaren biktimenzako existitzen diren baliabideak, laguntza zerbitzuak eta haien funtzionamendua jasotzen duten informazio programak eta biztanleriaren artean banatutako gida edota materiala.
- Ikastetxetan bi edizioetan bikote nerabeen indarkeria eta eskola-jazarpena landu duen “Hitz kolpez” programarekin egindako ahaleginarekin jarraitzea garrantzitsua da. Programa honen jarraipenean ikastetxeak inplikazio handiagoa izatea garrantzitsua izango litzateke.
- Halaber, Lurraldeko hezkuntza zentroek dituzten esperientzia ezberdinen hartu-emana izatea interesgarria izango litzateke; horren bidez, hezkidetzak politikak gutxien garatu dituztenek programa hauek gehien sustatu dutenen emaitzak eza-gutzea bideratuko liteke.
- Prebentzio lanean, antzematean eta harreran diharduten zerbitzu eta eragile ezberdinen arteko koordinazio funtzio eta mekanismoak zehazten duten herrialdeko protokoloak lantzea; hauek, deribazio bidez egindako ekintza guztien oinarri eta laguntza gisa balio behar lukete.
- Osasun Zerbitzuak, Ertzaintza eta ikastetxeak tartean sartzen dituzten erakundeen arteko koordinazio mekanismoak ezartzea. Horrek koordinazioa, arreta eta

arreta emandako kasuetako datu-bilketa hobetuko du.

- Aiarako Kuadrillaren kasuan Artziniega, Aiara eta Okondoko udalen eta Audio eta Amurrioko udalen arteko elkarlanerako mekanismoak ezartzea gomendagarria da. Izan ere, azken bi hauek indarkeriaren biktimei arreta emateko gaitan baliabide eta esperientzia gehiago dute.

la ez dago erreparazio sozialaren inguruko hausnarketarik Kuadrilla desberdinetako erakundetako elkarrizketatuen artean. Biktinekiko konpromiso sozialari buruzko hausnarketa bat abiatzea beharrezko da; arreta indibidualetik harago doana eta gizartearen benetako elkartasuna erakusten duena. Indarkeria matxista gizarte egiturei loturik dagoela eta ordena sinbolikoari jarraituz behin eta berriz sortzen dela ulertzen baitugu, kaltearen ordaina epaitegi-eremuan edota emozio-eremuan soilik ezin dezakegu kokatu. Biolentziari aurre egin dioten emakumeentzat gizarte-ordaina eta biktimen errekonozimendua bezain garrantzitsuak dira pertsonalki arretan ematen dieten baliabideak.

Formakuntzari dagokionez maila eta interes desberdinetarako emango litekeen programa bat lantzea gomendagarria izango litzateke, eta ez izatea soilik noizean behin ematekoa

- Politikariei zuzenduriko formakuntza berdintasuna, generoa eta emakumeen kontrako indarkeriari buruzkoa izan behar da. Eta bertan, azpimarratu beharrekoa da berdintasun eta indarkeriaren aurkako politikek gizartea eraldatu dezaketaren ikuspegia.
- Indarkeria antzematerako orduan adierazleen erabilera hobe dezakeen formakuntza behar dute langile teknikariek.
- Elkarre-sareari dagokionez, bere dibertsitatea hartu behar da kontuan; eta hortaz, gaia landu ez duten erakundeak, nolabaiteko sentsibiltate maila dutenei eta indarkeriaren kontrako borroka eginkizun nagusizat dutenei bideratutako formakuntza ezberdinak burutu behar dira.

Halaber, landa-guneko elkarten ezaugarrietara egokitutako diru-laguntzak beharrezkoak dira, emakumezko bazkideen ezaugarriari erantzungo dienak eta era berean beste emakumeekin dituzten harremanen bitartez haien ekintzen inpaktua handituko dutenak.

Azkenik, garrantzitsua da datu-bilketari ere so egitea. Datu-bilketa sistema koordinatzea, eguneratzea eta hobetzea beharrezkoa da, Kuadrilla bakoitzean ematen den indarkeria matxistaren adierazpenen erradiografia argiak egiteko erabilia izan dadin. Baita arreta emandako biztanleriaren ezaugarriak eta indarkeriatik ateratzeko haien prozesuen ezaugarriak ezagutuak izan daitezten. Helburu hori lortzeko hurrengo hau proposatzen dugu:

- Metodologia edota oinarri komun bat diseinatzea datuak sistematizatzeko. Kasuak bikoiztea saihestuko luke eta zerbitzu desberdinek datuak gurutzatzea ahalbideratuko luke, existitzen diren kasuen benetako informazioa emanez.

- Kuadrilla bakoitzeko diagnostikoek argi uzten dute harreman zuzena dagoela pertsonal politikoa izendatuta dagoen eta ezarritako politikaren jarraipen bat burutzen duten berdintasun plan bat dutenen, eta indarkeria matxistaren gaineko baliabideen eta hartaratzeko hobe daitezkeen neurrien (hala nola instituzio arteko koordinazioa) ezagutza izatearen artean.
- Abiapuntu horretatik abiatuz, honako azken proposamena egiten dugu: indarkeriaren prebentzio, arreta eta biktimen erreparazioarako berdintasun politika publikoetako lana elkartu dezaketen espezializatutako langileak izendatzea, horrela berdintasun planen iraunkortasuna ziurtatzeko.

Arabako gizonen eta emakumeen berdintasunerako IV. Foru Plana (2016-2020)

http://www.araba.eus/cs/Satellite?c=DPA_Plan_FA&cid=1224022739951&language=eu_ES&pageid=1193045607288&paghttp://www.araba.eus/cs/Satellite?c=DPA_Plan_FA&cid=1224022739951&language=eu_ES&pageid=1193045607288&pagename=DiputacionAlava%2FDPA_Plan_FA%2FDPA_plan

Argituz. Asociación Pro Derechos Humanos, 2012. Necesidades, obstáculos y buenas prácticas en los itinerarios de salida de la violencia de género desde la experiencia de mujeres del área rural de Araba.

<https://es.slideshare.net/ARGITUZorg/necesidades-obstculos-y-buenas-prcticas-en-los-itinerarios-de-salida-de-la-violencia-de-gnero-desde-la-experien-cia-de-mujeres-del-rea-rural-de-araba>

Kuadrilletako eta udalerrietako diagnostikoak barne-izaera duten dokumentuak dira.